| **HERNANIKO NEGOZIOAK SUSTATZEKO EROSKETA BONUAK. ABENDUKO KANPAINA** | **BONOS COMPRA PARA FOMENTAR LOS NEGOCIOS DE HERNANI. CAMPAÑA DE DICIEMBRE.** |
|---|---|
| 2020ko martxoaren 11n Osasunaren Munduko Erakundeak Covid-19ak sortutako egoera osasun publikoaren egoera izatetik nazio arteko pandemia egoera izatera igo zuen. | La Organización Mundial de la Salud elevó el pasado 11 de marzo de 2020 la situación ocasionada por el COVID-19 de emergencia de salud pública a pandemia internacional. |
| Gaixotasunaren progresioa eten nahirik, Ministroen Kontseiluak, 2020ko martxoaren 14ko bileran, 463/2020 Errege Dekretua onartu zuen, Covid-19ak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeari buruzkoa, eta horren 7. artikuluan pertsonen zirkulazio librerako mugak daude ezarrita. Ondoren, Diputatuen Kongresuak baimena eman dio Gobernuari lehendik dekretatutako alarma egoera luzatzeko. | Ante la necesidad de contener la progresión de la enfermedad, el Consejo de Ministros, en su reunión de 14 de marzo de 2020, aprobó el Real Decreto 463/2020, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, en cuyo artículo 7 se establecen limitaciones a la libertad de circulación de las personas. Posteriormente, el Congreso de los Diputados ha autorizado al Gobierno a prorrogar el estado de alarma previamente decretado. |
| Era berean, Gobernua zenbait errege dekretu lege onartzen joan da, adibidez 7/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 12koa, 8/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 17koa, eta 11/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 31koa, Covid-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko aparteko presazko neurriak hartzaeri buruzkoak. | Asimismo, el Gobierno ha ido aprobando sucesivos reales decretos ley como son el Real Decreto-ley 7/2020, de 12 de marzo, el Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo y el Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por los que se adoptan medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto social y económico del COVID-19. |
| Osasun krisiaren ondorioz alarma egoerak nahitaez ezarritako mugek eragin negatiboak izan dituzte alor ekonomikoan. Testuinguru horretan, alor ekonomikoan erabateko lehentasuna da ekoizpen eta gizarte egitura babestea eta horiei eustea inpaktua murrizteko, eta lortzea, osasun alarma bukatzen denean, lehenbailehen jarduera berreskuratzea. | Las limitaciones necesariamente impuestas por el estado de alarma, como consecuencia de la crisis sanitaria, han tenido efectos negativos en el ámbito económico. En este contexto, la prioridad absoluta en materia económica radica en proteger y dar soporte al tejido productivo y social para minimizar el impacto y lograr que, una vez finalizada la alarma sanitaria, se produzca, lo antes posible, una recuperación de la actividad. |
| Horri dagokionez, Hernaniko negozioek, alarma egoeraren inpaktua gogorki jasan dute eta bere jarduerari berrekin ahal dionean, zailtasunak izango ditu bizirauteko; horregatik, beharrezkotzat jotzen da laguntza ematea negozioak suspertzen saiatzeko eta erosketak egitean herritarren ohiturak aldatzea bultzatzeko. | A este respecto, los negocios del municipio de Hernani han sufrido el impacto de la declaración del estado de alarma, y una vez que los negocios puedan reanudar su actividad se va a encontrar con dificultades para poder sobrevivir por lo que se considera necesario prestarles un apoyo para intentar revitalizar las actividades económicas e impulsar el cambio de hábitos en la ciudadanía a la hora de realizar las compras. |
| Horretarako, BERRIAK Hernaniko merkatari eta ostalarien elkartearekin batera, Udalak Hernanin erosketa bonuen programa babestea pentsatu du, herritarrei kontsumo ondasunak eskuratzen laguntzeko, hiri ekonomia indartzeko bitarteko gisa, eta | Para ello, junto con la asociación de comerciantes de Hernani BERRIAK el Ayuntamiento ha considerado apoyar el programa Bonos de compra en Hernani para ayudar a los y las ciudadanas en la adquisición de bienes de consumo como |

| | |
|---|---|
| horrekin batera, hiri inguruneak dinamizatzeko. | medio para fortalecer la economía urbana y con ello, la dinamización de los entornos urbanos. |
| Hernaniko erosketa bonuen programaren helburuak hauek dira: | Los objetivos del programa Bonos compra de Hernani son: |
| Udalerriko merkataritzan erosketak sustatzea, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko orduan herritarren ohitura aldaketak larriki eragiten dion sektore baten garapen ekonomikoa bultzatzeko. | Incentivar la compra en el comercio y los servicios del municipio para impulsar el desarrollo económico de un sector que se encuentra gravemente afectado por el cambio de hábitos de los y las ciudadanas a la hora de adquirir bienes. |
| Sektorea biziberritzea, herritarrak Gabonetako erosketak herrian egitera animatuz, guztion artean Hernaniko kaleak bizirik mantendu ahal izateko. | Revitalizar el sector animando a la ciudadanía a hacer las compras de Navidad en el municipio y entre todos poder mantener vivas las calles de Hernani. |
| Udalerriko hiri ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez. | Dinamizar la economía urbana en el municipio, actuando como complemento y refuerzo de otras medidas. |
| Horrelako laguntzek sor dezaketen enpresa sendotzearen dinamika ez da bateraezintzat jotzen lehia indarren joko askearekin, lehiarako gutxieneko murrizketarekin eta zeharkako etekina merkataritza banaketako enpresa gutxi batzuetan kontzentratzea saihesteko neurriekin egiten baita. | La dinámica de consolidación empresarial que puede generar este tipo de ayudas no se considera incompatible con el libre juego de las fuerzas competitivas, en tanto en cuanto se realiza con la mínima restricción competitiva y con medidas para evitar la concentración del beneficio indirecto en unas pocas empresas de distribución comercial. |
| Horregatik guztiagatik, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearekin bat etorriz, honako hau | Por todo ello, y de conformidad con la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; y de conformidad con la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, |
| **EBAZTEN DUT** | **RESUELVO** |
| Hiri ingurunea dinamizatu eta hiri ekonomia bultzatzeko herritarrek kontsumo ondasunak eskuratzeko bonuak erregulatuko dituzten arau bereziak onartzea. Hau guztia martxan jartzeko BERRIAK Hernaniko merkatari eta ostalaritza elkarteari premiazko dirulaguntza zuzena emango zaio, ondorengoak kontuan izanda: | Aprobar las normas especiales reguladoras para la concesión directa de ayudas urgentes a la asociación de comerciantes y hosteleros de Hernani BERRIAK para ayudar a los y las ciudadanas en la adquisición de bienes de consumo como medio para dinamizar el entorno urbano y fortalecer la economía urbana, siendo éstas las siguientes: |
| 1. **1. artikulua. Helburua.** | **Artículo 1. Objeto**. |
| Deialdi honen helburua Hernaniko hiri ingurunean pertsonei bideratutako produktu eta zerbitzuak eskeintzen dituzten negozioak indartzeko abenduko erosketa bonuen | El objeto de esta convocatoria es aprobar las bases del programa de diciembre de bonos de compra en Hernani para dinamizar en entorno urbano de Hernani y fortalecer la economía de aquellos negocios que ofrecen productos y/o |

| | | |
|---|---|---|
| | programaren oinarriak onartzea da. | servicios a las personas del municipio de Hernani. |
| 2. | **2. artikulua. Kreditu erabilgarria**<br><br>Deialdi honetarako 50.000 euro erabiliko dira, 1 02.481.02.431.00 2020 (6334) KONTSUMO-BONOAK-COVID-19 aurrekontu partidaren kargura. | **Artículo 2. Crédito disponible.**<br><br>Para esta convocatoria se destina la cantidad de 50.000 euros, con cargo a la partida presupuestaria1 02.481.02.431.00 2020 (6334) KONTSUMO-BONOAK-COVID-19 |
| 3. | **3. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak eta aplikazio eremua.**<br><br>1. Hala eskatzen duten Hernaniko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan norberarentzat eta familiarentzat ondasunak erosteko herritarren artean banatuko diren bonuak.<br><br>2. Erosketa bonu horietako bakoitzak 50 euroko balioa izango du (10 euroko bonoetan zatigarria), eta onuradun den herritar bakoitzak 35 euroko gastua egin beharko du; beraz, 50 euroko balioa duten produktuak eskuratuko dituzte, eta horietatik 35 euro bakarrik ordaindu beharko dituzte. Erosketa bonu bakoitzaren 15 euroko aldea Hernaniko Udalak jarriko du, BERRIAK merkatari eta ostalari elkartearen bitartez.<br><br>3. Diruz lagundu daitekeen jardueraren esparruan sartzen dira milioi batetik beherako mikroenpresa eta norberaren konturako langileak, baldin eta, pertsonei zuzendutako salmenta edo zerbitzua eskeintzen badute. | **Artículo 3. Actividad subvencionable y ámbito de aplicación.**<br><br>1. La compra de bienes de compra personal y familiar en establecimientos comerciales minoristas, hosteleros y de servicios del municipio de Hernani, a través de bonos que se repartirán entre la población para canjearlos en los establecimientos comerciales que lo soliciten.<br><br>2. Cada uno de estos bonos tendrá un valor de 50 € (divisible en bonos de 10 €), y cada persona beneficiaria del bono deberá realizar un gasto de 35 €, por lo que adquirirán productos valorados en 50€ de los cuales únicamente tendrán que pagar 35 €. La diferencia de 15 € euros en cada bono será aportada por el Ayuntamiento de Hernani a través de la asociación de comerciantes y hosteleros BERRIAK.<br><br>3. El ámbito de la actividad subvencionable comprende las actividades desarrolladas por microempresas con una facturación inferior al millón de euros y personas trabajadoras por cuenta propia, siempre que ofrezcan un servicio o venta dirigido a las personas. |
| | **4. artikulua. Laguntzen izaera.**<br><br>Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira. | **Artículo 4. Naturaleza de las ayudas.**<br><br>Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables. |
| | **5. artikulua. Laguntzak kudeatzeko organoa.**<br><br>Turismo eta Merkataritza Sailari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea. | **Artículo 5. Órgano de gestión de las ayudas.**<br><br>Corresponderá al Departamento de Turismo y Comercio la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria. |

| | |
|---|---|
| **6. artikulua. Onuradunak**<br><br>Hernanin bizi diren pertsona fisikoak bonu hauen onuradunak izango dira, betiere ezarritako baliabide eta bideetatik eskuratu badituzte.<br><br>16 urtetik gorako onuradun bakoitzak Bono bat eskuratu ahal izango du eta horretarako bere Nortasun Agiria aurkeztu beharko du. 16 urtetik beherakoen kasuan, bere guraso edo tutoreak egingo du erosketa, eta Nortasun Agirirk ez balu, Familia Liburua aurkeztu beharko du. | **Artículo 6. Personas beneficiarias.**<br><br>Se consideraran personas beneficiarias de estos bonos las personas físicas residentes en Hernani que los hayan obtenido por los medios y cauces establecidos.<br><br>Cada persona beneficiaria, a partir de 16 años, podrá adquirir un bono de compra, para lo que tendrá que presentar el Documento Nacional de Identidad. En caso de las personas menores de 16 años, la compra la realizarán sus padres/madres o personas tutoras y en caso de que el menor no tenga Documento Nacional de Identidad, deberán mostrar el Libro de Familia. |
| **7. artikulua. Erakunde laguntzailea**<br><br>1. BERRIAK Hernaniko merkatari eta ostalari elkartearekin elkarlanean banatuko dira erosketa bonuen trukearen bidezko dirulaguntzen funtsak, eta dirulaguntzaren baldintzak eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu ere bai.<br><br>2. Lankidetza hitzarmenaren bidez gauzatuko da elkarlana, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorra izango baititu ardatz, eta lege horietan eta dirulaguntzak kudeatzeko erakunde lagun-tzaileentzako garapen xedapeneta aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaio erakundeari.<br><br>3. Lankidetza hitzarmena sinatu eta gero, elkarteak adierazitako kontuan sartuko du Udalak dirua. | **Artículo 7. Entidad colaboradora**.<br><br>1. La distribución de los fondos subvencionables mediante el canje de los bonos y la comprobación del cumplimiento de las condiciones y requisitos de la subvención se hará con la colaboración de BERRIAK asociación de comerciantes y hosteleros de Hernani.<br><br>2. La colaboración se instrumentará mediante convenio de colaboración, que se regirá por lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y de la General de Subvenciones, aplicándose a la entidad el régimen jurídico previsto en dichas Leyes y en sus disposiciones de desarrollo para las entidades colaboradoras en la gestión de subvenciones.<br><br>3. Una vez suscrito el convenio de colaboración, la aportación del Ayuntamiento será ingresada en la cuenta de la asociación. |
| **8. artikulua. Parte hartzeko baldintzak**<br><br>1. Hernaniko erosketa bonuen programan parte hartzeko aukera izango dute bonuak hartu eta ordainketa modu gisa onartzen dituzten Hernaniko establezimenduek. Hauek persona fisiko zein juridikoak izan daitezke, baina ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:<br><br>a- Jardueraren helburu nagusia kontsumitzaileari kontsumo produktuak eta zerbitzuak | **Artículo 8. Condiciones de adhesión.**<br><br>1. Podrán adherirse al programa Bonos de compra en Hernani aceptando comercializar y recibir el mismo como medio de pago, aquellos establecimientos del municipio de Hernani que, con independencia de que sean personas físicas o jurídicas, cumplan los siguientes requisitos:<br><br>a- Tener como objeto preferente de su actividad el de la venta directa de productos y |

| | |
|---|---|
| zuzenean saltzea .<br><br>b- Zerga betebeharretan, bai Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin eguneratuak egotea eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharretan.<br><br>c- Hernaniko Udalarekin zorrik ez izatea. | servicios al consumidor/a.<br><br>b- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y Hacienda y, en su caso, de las obligaciones de reintegro de subvenciones.<br><br>c- No tener deudas en el Ayuntamiento de Hernani. |
| 2. Alde horretatik, beste betebehar batzuk kontuan izan beharko balira, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxieneko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko edozein agiri. | 2. En tal sentido, sin perjuicio de cuantas otras formalidades pudieran estar obligadas a cumplir, el Ayuntamiento podrá solicitar en cualquier momento cualquier documento acreditativo del cumplimiento de tales requisitos mínimos. |
| Horiek betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskaerak ez dira kontuan hartuko eta ez dira onartuko. | No se tendrán en cuenta ni admitirán las solicitudes presentadas por entidades que no cumplan con los mismos. |
| Ezingo dute parte hartu lotería, apostu eta erregaien salmentako enpresek. | No podrán participar las empresas de loterías, apuestas y venta de combustible. |
| **9. artikulua. Programan parte hartzeko epea eta prozedura.** | **Artículo 9. Plazo y proceso de adhesión al programa.** |
| Hernaniko Erosketa bonuen programan parte hartu nahi duten saltokiek eskaera, onarriak www.hernani.eus orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurkeztu dezakete. | El plazo para que los establecimientos comerciales puedan adherirse al programa Bono de compra de Hernani empezará al día siguiente desde la publicación de estas bases en la página web www.hernani.eus |
| Interesa izan dezaketen pertsonek parte hartzeko eskaera orria Hernaniko Udaleko webgunean egongo da: www.hernani.eus. | El formulario de adhesión estará a disposición de las personas interesadas en la página web del Ayuntamiento de Hernani www.hernani.eus. |
| Eskaerak legezko ordezkariak edo eskatzaileak aurkeztu beharko ditu, Udalak egindako eskabide ofizialaren ereduan. Eskabideak aurkeztu ahal izango dira: bai emailez merkataritza@hernani.eus helbidean, zein bide telematikoz Hernaniko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez. | Las solicitudes las deberá presentar la persona solicitante o representate legal en modelo oficial elaborado por el Ayuntamiento. Las solicitudes de adhesión se podrán presentar bien por email en la dirección merkataritza@hernani.eus bien vía telemática en el registro electrónico. |
| Era berean, Merkataritza eta Turismo Sailan aurkeztu ahal izango dira era presentzialean, Biteri Kultur etxean. | Asimismo, se podrán presentar de forma presencial en el Departamento de Comercio y Turismo ubicado en la Casa de Cultura BITERI. |

| | |
|---|---|
| BERRIAK Elkarteko negozioen kasuan, Hernaniko Udalak elkartearekin duen lankidetza hitzarmenaren baitan, zuzenean onartuko dira elkarteak aurkezten duen parte hartzaileen zerrenda, parte hartzaileen datuak jasotzen dituena.<br><br>Bonoen iraileko kanpainan parte hartu duten establezimenduak zuzenean hartu dezakete parte, ezezkoa ematen ez den bitartean.<br><br>Eskaera orria aurkeztean, parte hartzen duten establezimenduei beharrezko dokumentazioa eta jarraibideak emango zaizkie, Biteri Kultur Etxean jaso ahal izango direnak.<br><br>**10. Parte hartuko duten saltokien betebeharrak.**<br><br>Hernanin erosteko bonuen programan parte hartzeko eskaera orria aurkeztu duten saltokien betebeharrak hauek izango dira:<br><br>1. Atxikitako dendak konpromisoa hartzen du publizitateko materialak saltokian jaso eta ikusteko moduan jartzeko.<br><br>2. Atxikitako dendak eskuratzaileen nortasuna kontrolatzeko konpromisoa hartzen du.<br><br>3. Bonoaren zenbatekoa kobratzeko eskatzeko, dendak salmentaren frogagiriak; hau da, behar bezala betetako erosketa bonua eta faktura edo erosketa tiketa BERRIAK Elkartearen bulegoan utzi beharko ditu.<br><br>4. Erosketa bonuen erabiltzaileei ez zaie itzuliko erosketaren eta erosketa bonuaren balioaren arteko diferentzia.<br><br>5. Erosketa bonuen bidez erositako ondasunen itzulketa politikari dagokionez, saltoki bakoitzak zehaz-tuko du noiz eta nola egin itzulketa. Halere, erosketa bonuarekin eskuratutako produktua itzultzen bada, ez da eskudirutan itzuliko. Aitzitik, saltoki bereko beste produktu batekin ordezkatuko da, edo erosleak | En el caso de los negocios de la Asociación Berriak, en el marco del convenio de colaboración del Ayuntamiento de Hernani con la asociación, se aprobará directamente la relación de participantes que presenta la asociación, que recoge los datos de los participantes.<br><br>Los establecimientos participantes en la campaña de bonos de septiembre pueden participar directamente mientras no se deniegue.<br><br>En el momento de presentar el documento de adhesión, a los establecimientos adheridos se les facilitará la documentación e instrucciones necesarias, que podrán recoger en la Casa de Cultura Biteri.<br><br>**Artículo 10. Obligaciones del establecimiento adherido.**<br><br>El establecimiento adherido al programa Bonos de compra en Hernani a través de la suscripción de la solicitud de adhesión, adquirirá las siguientes obligaciones:<br><br>1. El comercio adherido se compromete a la recepción y colocación de los materiales publicitarios en un lugar visible del establecimiento.<br><br>2. El comercio adherido se compromete a realizar el control de la identidad de las personas adquirientes.<br><br>3. Para solicitar el cobro del Bono el comercio deberá entregar la documentación acreditativa de la venta (bono debidamente cumplimentado y ticket o factura simplificada de compra) en la oficina de la asociación BERRIAK.<br><br>4. No se devolverá a las personas usuarias de los bonos dinero en metálico sobre la diferencia entre la compra y el valor del bono.<br><br>5. La política de devoluciones de los bienes comprados mediante el bono será la que cada establecimiento determine en cuanto a plazo y forma de la devolución. Ello no obstante, en caso de devolución del producto adquirido con el bono, no se procederá a la restitución del importe adicional, sino a su sustitución por |

| | |
|---|---|
| ordaindutako zenbatekoa eskudirutan ordainduko zaio; kasu horretan, erosketa bonuen deuseztapenaren berri eman beharko da, eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko du saltokiak. | otro producto del mismo establecimiento o a la devolución en metálico del importe efectivamente abonado por el o la compradora, debiendo en este caso comunicar la anulación del bono y debiendo restituir el importe que el establecimiento hubiese percibido. |
| 6. Parte hartutako saltokiekin harremanetan jarri ahal izango da, funtzionamendua egiaztatzeko eta oro har prozesuaren eta kanpainaren inguruan zer iritzi duten egiaztatzeko. | 6. Los establecimientos adheridos podrán ser contactados para verificar el funcionamiento y su opinión sobre el proceso y la campaña en general. |
| **11. artikulua. Erakunde onuradunaren betebeharrak.** | **Artículo 11. Obligaciones de la entidad colaboradora.** |
| 1. BERRIAK merkatari eta ostalari elkarteak, dirulaguntza kudeatzen laguntzen duen erakundea den aldetik, jarduera hauek egingo ditu: | 1- La asociación de comerciantes y hosteleros BERRIAK, en su condición de entidad colaboradora en la gestión de la subvención, realizará las siguientes actuaciones: |
| a) Programa orokorrean hedatzea, bere webgunean, sare sozialetan eta komunikabideetan. | a) La difusión del programa, tanto la general a través de su página web y de las redes sociales. |
| b) Interesa duten negozioei informazioa ematea. | b) La información a los negocios interesados. |
| c) Hobaridun salerosketa bakoitzaren eskakizunak bete direla egiaztatzen kolaboratzea; salerosketa hori bonua(k) eta faktura edo erosketa tiketa aurkeztuta egiaztatuko da. | c) Colaborar en la verificación del cumplimiento de los requisitos de cada compraventa bonificada, documentada en el (los) bono(s) y en una factura o ticket de compra. |
| d) Erosketa bonuen banaketa eta kudeaketa. Hernaniko Udalak bonuen banaketarako salmenta puntu gehigarriak jarri ahal izango ditu BERRIAK elkartearen salmenta puntua osatzeko. | d) La distribución y gestión de los bonos. El Ayuntamiento de Hernani podrá facilitar otros punto de venta adicionales que complementen al que realice la asociación de comerciantes y hosteleros BERRIAK. |
| 2. Jarduketa horiek gauzatzean, negozioaren eta pertsonen datuei dagokienez konfidentzialtasun eta isiltasun betebeharrak bete beharko ditu. Egiaztapen lanak egin ondoren, dokumentazio guztia Turismo eta Merkataritza Sailera bidali beharko da. | 2- En la ejecución de estas actuaciones deberá observar los deberes de confidencialidad y sigilo en lo que se refiere a los datos de negocio y de personas. Una vez realizadas las actuaciones de comprobación deberá enviar toda la documentación al Departamento de Turismo y Comercio. |
| 3. Erabat debekatua dago negozioetan diskriminazio edo tratu desberdinatusunak egotea, batez ere | 3- Está absolutamente prohibida cualquier discriminación o trato desigual a los comercios, |

| | |
|---|---|
| elkarteko kide izatearekin edo ez izatearekin. | especialmente el basado en el hecho de ser o no establecimiento asociado |
| **12. artikulua. Dirulaguntzen indarraldia eta kanpainaren egutegia**<br><br>1. Hernanin kontsumitzeko erosketa bonuak, ordainketa modu gisa, Hernaniko udalerrian bakarrik erabiliko dira.<br><br>2. Erosketa bonuak abenduaren 9tik 23ra eskuratu ahal izango dira (edota bonoak bukatu arte, lehenago amaitzen badira) eta 2021eko urtarrilaren 6a bitartean erabili ahal izango dira , soilik programari atxikitako establezimenduetan. Epe hori igarota, ez da erosketa bonurik onartuko.<br><br>3. Programari atxikitako establezimenduek astero egindako eragiketei dagozkien erosketa bonuen ordainketa jasoko dute. Horretarako, BERRIAK Elkartearen Bulegoan aurkeztu beharko dituzte fakturarekin edo erosketa tiketarekin batera.<br><br>4. Kasu guztietan, data horiek aldatu ahal izango dira, antolaketa inguruabarrek edo bestelako arrazoiek hala gomendatzen badute, eta horren berri emango da. | **Artículo 12. Vigencia de las ayudas y calendario de la campaña.**<br><br>1- La validez del Bonos consumo en Hernani como medio de pago se limitará en exclusiva al municipio de Hernani.<br><br>2- Los bonos se podrán adquirir del 9 al 23 de diciembre (o hasta agotar existencias, en caso de que se terminen antes) y utilizarse hasta el 6 de enero de 2021, exclusivamente en los establecimientos adheridos al programa. Transcurrido dicho plazo no se aceptará ningún bono.<br><br>3- Los establecimientos adheridos al programa podrán hacer efectivos los bonos correspondientes a las operaciones realizadas cada semana presentándolos junto con la factura o ticket de compra en la Oficina de la asociación BERRIAK.<br><br>4- En todos los casos, estas fechas podrán modificarse si las circunstancias u otras razones organizativas así lo aconsejaran, dando la oportuna publicidad de ello. |
| **13. artikulua. Programan parte hartu duten negozioetan jaso dituzten erosketa bonuak trukatzeko prozedura eta ordainketa.**<br><br>Trukea egiteko, jasotako erosketa bonuak eta erosketa tiketa edo faktura eraman beharko dira BERRIAK elkartearen bulegora. Trukea astean behin egingo da. Dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da, jaso eta hamabost eguneko epean eta banku transferentzia bidez. Ordainketak astearteetan gauzatuko dira. | **Artículo 13 Procedimiento de canje y pago de los bonos recibidos por los negocios adheridos al programa**.<br><br>El canje deberá efectuarse mediante entrega de los bonos recibidos junto con el ticket o factura de compra en la oficina la asociación BERRIAK. Este canje podrá ser efectuado una vez por semana. Una vez realizada la comprobación de la documentación, en el plazo de quince días desde su recepción y mediante transferencia bancaria. Los pagos se realizarán los martes. |
| **14. artikulua. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.**<br><br>Hernaniko Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol | **Artículo 14. Inspección e incumplimientos.**<br><br>El Ayuntamiento de Hernani, se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta |

| | |
|---|---|
| guztiak egin ahal izango ditu ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela. | aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de ayudas. |
| Saltoki atxikiek ez-betetzeren bat eginez gero, Hernaniko Udalak erosketa bonuen programara duten atxikipena bertan behera utzi dezake, eta ez-betetzearen ondoriozko neurriak aplikatu. | En el supuesto de que se operase algún incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Ayuntamiento de Hernani, podrá cancelar la adhesión de los mismos al programa bonos consumo de Hernani y aplicar las medidas derivadas del incumplimiento. |
| Atxikitako establezimenduak behartuta daude Hernaniko Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera. | Los establecimientos adheridos se obligan a facilitar cuanta información sea requerida por el Ayuntamiento de Hernani en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas. |
| **15. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura.** | **Artículo 15. Procedimiento de concesión de la subvención.** |
| Ebazpen hauek zuzenean ematen dira, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean 22.2c) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, aipatutako Legearen 28. artikuluaren 2. eta 3. ataletan ezarritakoari eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren -Legearen Araudia onartzen den horren- 67. artikuluan aurreikusitakoari dagokionez, horrela zuritzen duten interes ekonomiko, sozial eta humanitarioko aparteko arrazoiak baitaude. | Estas ayudas se conceden de forma directa, al amparo de lo previsto en el artículo 22.2c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en relación con lo que establecen los apartados 2 y 3 del artículo 28 de la Ley mencionada y con el artículo 67 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la misma, por concurrir razones extraordinarias de interés económico, social y humanitario que lo justifican. |
| Ebazpen honetan araututako dirulaguntzek izaera berezia dute, prozeduraren zioa diren gertaerek salbuespenezko izaera baitute. Dirulaguntzaren xede zehatza dela eta, beharrezkoa da zuzenean ematea lehiarik gabe. | Las subvenciones reguladas en esta resolución tienen un carácter singular, derivado del carácter excepcional y único de los acontecimientos que motivan el procedimiento en cuestión. Dado el objeto específico de las subvenciones, se requiere una concesión directa sin concurrencia competitiva. |
| Zehazki, dirulaguntzak zuzenean ematea zuritzen duten interes publikoko arrazoiak zera dira, tokiko komertzioa sustatzeko beharra betetzea, haien jarduera etenda gertatu baita, bat etorriz martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan Covid-19ak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeari buruzkoan-aurreikusitakoarekin. | En concreto, las razones de interés público que justifican el otorgamiento directo de las subvenciones radican en la urgencia en atender las necesidades de reactivar el comercio local, cuyas actividades han quedado suspendidas, con arreglo a lo previsto en el Real Decreto 463/ 2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19. |
| AZKEN XEDAPENAK | DISPOSICIONES FINALES |
| Administrazio bidea amaitzen duen deialdi honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango diote interesdunek, hilabeteko epean, argitaratu eta | Contra la presente convocatoria, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes a partir del siguiente a |

| | |
|---|---|
| biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita. | su publicación o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación. |